

IV. ITZURUN-ARRANPLA ITSAS ZEHARKALDIA

SARRERA

Itzurun-Arranpla itsas zeharkaldiaren hirugarren edizioaren ondoren, TAOSA igeriketa-klubak IV. edizioa antolatzeko asmoa du, beste urrats bat emanda eta klubaren hedapen-prozesuarekin bat.

Kostako herri bat izanik, Zumaiak beti izan du harreman berezi bat itsasoarekin, bai eta igeriketarekin ere, eta Gipuzkoako itsas zeharkaldietan finkoa izango den zeharkaldia izatea merezi du. Eta, izan ere, aurten, lehen aldiz, Ur Irekietako Gipuzkoako ligako proba izango da.

Zumaiak kostalde paregabea du, eta igerilariek modu desberdin batean gozatu ahal izango dute hartaz. Irteera Itzurun hondartzan izango da, flysharen muinean eta labarrez inguratuta, leku zoragarri batean, eta helmuga, berriz, Urola ibaian gora du. Eta horrek proba berezia bihurtzen du, itsasoan igeri egiteak duen xarma ibaiko ur bareekin uztartzen baitu.

Ingurunearen edertasunari gure klubaren ilusioa erantsi behar zaio: txiki-txikia, ia lagunartekoa zen klubak 100 bazkide ditu gaur egun. TAOSA klubaren lehentasun nagusia herrian igeriketa bultzatzea da, ez soilik aisialdiko jarduera moduan, baita, inguruko zenbait herritan bezala, kirol moduan ere, haur eta gazteen artean gure kirolaren bidez bizitzan funtsezkoak diren balioak sustatzeko.









PROBAREN DATUAK

Eguna:

2019/08/03, larunbata

Ordutegia eta ibilbidea:

Probari 17:00etan emango zaio hasiera Itzurun hondartzatik, eta 3000 m. egin ondoren, Arbuztaingo arranplan amaituko da.

Partaideen erantzukizuna izango da adierazitako orduan irteera-puntuan egotea, epaileek zeharkaldiari hasiera ematen dioten unean.

Antolatzaileak:

TAOSA IGERIKETA KLUBA

Izen-emateak:

Internetez bakarrik, rockthesport.com webgunean.

Izen-emateko epea 2019ko maiatzaren 1ean zabalduko da, 12:00etan, eta 2019ko abuztuaren 1ean itxiko da 23:59an, edota plaza guztiak betetzen direnean.

Prezioak:

2019-05-01 / 2019-06-15: 23€

2019-06-16 / 2019-07-15: 26€

2019-07-16 / 2019-08-01: 30€

Dortsalak jasotzea:

Dortsalak probaren egunean jaso ahal izango dira, 12:00etatik 16:00etara, helmuga-eremuan, Arbuztaingo arranplan.

ITZURUN-ARRANPLA ZEHARKALDIAREN IBILBIDEA

Irteera Itzurun hondartzan izango da, eta hondartzaren eskuinean dagoen albo batean utzi ondoren zuzenean egin beharko dute igeri kai-muturrera iritsi arte. Han, Urola ibaian gora egin beharko dute, Arbuztaingo arranplan, Zumaia erdi-erdian, dagoen helmugara arte.

DISTANTZIA: 3.000m



Itsasoko ibilbidea buien bidez adierazita egongo da. Igerilariak eskuinean utzi behar dituzte buiak erriora iritsi arte; erriora iristen direnean, buia ezkerrean utzi behar dute, eta eskuineko ertzetik egin behar dute igeri, ezkerreko aldea igerilariekin batera joango diren ontzi eta piraguentzat utzita.



IRTEERA

Irteera 17:00etan izango da, eta partaide guztiak batera aterako dira Itzurun hondartzako hondarretatik.

HELMUGA

Helmuga Zumaiaren bihotzean egongo da, Arbuztaingo arranplan, Amaiako plazaren ondoan.

Kai-muturretik, hartara hurbiltzen direnek igerilariak Itzurun hondartzatik etortzen ikusi ahal izango dute, eta haien parean joateko aukera izango dute probaren azken zatian (1.000 metroz), ibaiaren ertzetik helmugaraino doan pasealekutik.





Probaren helmuga izateaz gain, haren gune estrategikoa ere izango da, hor egongo baitira arropazaindegia, hornidura-gunea eta medikuntza-zerbitzua ere.





SARIAK ETA ZOZKETAK

Proba amaitutakoan sariak banatuko zaizkie irabazleei eta zenbait opari zozketatuko dira.

Hauek jasoko dute saria:

- 1., 2. eta 3. gizonetzkoak
- 1., 2. eta 3. emakumezkoak
- Zumaiako 1. gizonetzkoak
- Zumaiako 1. emakumezkoak

GALERIA

Aurreko probetan dron baten bidez grabatu zen proba, eta horrek bultzada handia eman zion probari hurrengo urteetarako.

Aurten ere dronaren bidez grabatzeko asmoa dago, proba sustatzen jarraitzeko.

Drona maneiatuko duen pertsonak egunean ditu hura erabiltzeko beharrezkoak diren baimen eta aseguru guztiak.

Itsas Kapitaintzan horretarako ardura duenari baimena eskatzen diogu portu-eremuan irudiak grabatzeko.

PROBA BERTAN BEHERA UZTEA EDO B PLANA

Proba bertan behera uztea. Zero arrisku.

Antolatzaileak eskubidea izango du ibilbidea aldatzeko, irteera-ordua atzeratu edo aurreratzeko, eta probaren eguna aldatzeko edo bertan behera uzteko, igerilarien segurtasuna bermatze aldera.

Ibilbide alternatiboa: itsasoaren egoerak proba itsasoan egitea eragozten badu, ibilbide alternatiboa egingo da Urola erriean. Erriean ezin bada egin, proba bertan behera geratuko da.

Lehenengo edizioan, itsasoaren egoera txarra zenez, erriorean babesean egin zen proba eta, hala ere, arrakasta handia izan zuen.



SEGURTASUNA

DEBEKUAK



Probak irauten duen bitartean, portuaren sarrera eta irteera itxita egongo da. Horretarako, probak irauten duen bitartean nabigazioa debekatuta dagoela adierazten duten kartelak jarriko dira kirol-portuan. Debekua bete egiten dela eta igerilarien segurtasuna ziurtatzeko, antolakuntzaren ontzi bat egongo da portuaren irteeran.

Eta ibaiaren bokalean, Orrua parean edo, beste bat jarriko da probak irauten duen bitartean ontzirik ez sartzeko erriean.

PROBAREN JARRAIPENA

Aipatutako bi ontzi horiez gain, eta igerilarien segurtasuna bermatzeko, antolakuntzaren bost ontzik eta uretako bi motorrek jarraituko dute probaren ibilbide osoa.

Horrez gain, piraguak eta padel-surfak egongo dira ibilbidean, igerilarien ondoan, bide osoan zehar.

Probaren jarraipenerako bi arduradun nagusi egongo dira, lehorreko arduradun bat eta itsasoko arduradun bat. Biak TAOSA klubeko kideak izango dira.

ASEGURUAK

Parte-hartzaileek igerilariaren aseguruia izango dute, Kronoak plataformak eskainitakoa.

Horrez gain, erantzukizun zibileko aseguru bat ere kontratatuko da, 900.000 €-ko estaldura duena.

ZERBITZUAK

ZERBITZU MEDIKOA

Zerbitzu medikoa Arbuztaingo arranplan egongo da, hau da, helmugan. Gurutze Gorria izango da zerbitzu horren arduraduna.

Itsasoan ere Gurutze Gorriko kideak egongo dira, uretako motorretan.

DUTXAK

Parte-hartzaileek dutxa-zerbitzua izango dute Zumaiako kirol-instalazioetan.